


LABetik

Kurtsoaren aurkezpena

2015 urria

Nazio Biltzarra



KURTSOAREN AURKEZPENA

Hitzordu garrantzitsuenak ezagutuz ekiten diogu kurtso berriari. Hauteskundeak egin dira Grezia eta Katalunian, espainiar Estatukoak izango dira abenduan, eta gero EAEkoei begira jarriko gara.

Urriaren 24an "Alternatiben Herria" dugu eta abenduan alternatiben eztabaida Europa osoan zehar indartzea ekarri behar duen gailurra egingo da Parisen. Guretzat urriaren 24ko ekimena lehentasunezko hitzordua da, aparteko garrantzia du, Karta Sozialaren hirugarren fasean sartuko gaituelako. Fase erabakigarria da, prozesu sozial sendo bat martxan jartzeko tresna dela erakusteko.

Lan munduari begiratuz, patronalak dagoeneko bere agenda markatu du:

Nafarroan Gobernuak keinua egin dio orain arteko erregimen sozioekonomikoari (formakuntza deialdia kasu). Lan harremanak demokratizatzeko konpromisoa hartu dute hala ere, eta urratsen arabera ikusiko dugu zein izango den jarrera.

EAE n hitzarmenak desblokeatu behar direla eta gutxiengo sinaduren bidearekiko jarrerak argitzen hasi ziren uztailan. Guk ez dugu bide hori ontzat ematen eta hortik lortu nahi dituzten hitzarmenak ere ez ditugu onartzen, erreformaren lan mundua sendotu, egonkortu eta bake soziala ziurtatzea helburu dutelako. Erantzuna gatazka eta borroka indartzea da, zalantzarik gabe.

Kurtso berriaren garrantzi politikoa azpimarratu behar dugu derrigorrez. Gurean, esparru politikoan "Zutik Euskal Herria" estrategian sakontzeko gogoeta eta eztabaida agendaren erdian dago. Halako gogoeta bat eskatuz amaitu genuen kurtsoa eta hartutako erabakiarekin bat egiten dugu. Gehiago, bizi dugun momentu politikoa aintzat hartuta.

Espainian erreforma konstituzionalaren eztabaida mahai gainean dago eta erronka bistakoa da: estatuan egiten ari diren prozesu politikoaren gainetik guk Euskal Herrian burujabetza prozesua nagusitzea lortu behar dugu. Erreformaren momentuan apurketa irudikatzen eta benetako aldaketa demokratikoak lortzeko momentua izan behar da.

Okertu egingo gara begi guztiak Madrilen emango den joko politikoari begira jartzen baditugu. Gure ekimenez gure bidea egiteko hemen dugun gaitasuna izan behar da erabakigarria. Independentziaren aldeko jarrerak zabaltzeko momentua da, independentziaren proiektua sendotu behar dugu, eta estrategia independentista indartu behar dugu. Eremu sindikaletik burujabetza prozesua indartzea dagokigu eta ahalegin horretan erreferente izateko lan egingo du LABek.

Konstituzio propio bat behar dugu, eskubideak ziurtatzeko balioko diguna. EAJk dio Euskal Herriaren bizkar hezurra bera dela, guk lortu behar dugu ardatza euskal jendartea izatea. Zentzu horretan Kataluniako prozesua ere mugari izaten ari da.

AKTUALITATEARI GAINBEGIRATUA

Bizi dugun egoera bai hemen eta bai kanpoan ere aztertzeko aukera ematen diguten gertakariak egon dira uda osoan:

- **Erreskatea eta hauteskundeak Grezian.** Europari begirako eztabaida egiteko aukera ezinhobea eskaintzen digu egoerak. Politikak goitik behera aldatzeko ez da nahikoa Estatu egiturak edukitzea, alternatiba bat eraikitzeo aukerak zenbatekoak diren, botere ekonomiko-finantzieroaren diktaduraren benetako indarra zein den neurtu behar da. Alternatiba borrokatzen dugunok eztabaida indartzeko arrazoiak ditugu; orain, baita esperientzia erreal bat ere.

- **Errefuxiatuen krisia** izan da uda markatu duen gertaera politiko eta soziala. Siriatik datozen errefuxiatuen egoerak ezin gaitu mundu osoan zehar dauden milioika errefuxiatuen egoera ahaztera eraman. Sistema kapitalistak konponezinak diren barne krisiak ditu, krisi sistemikoa da eta sistemak ez du egoera konpontzeko inolako asmorik. Errefuxiatuen krisiak hamaika arrazoi ematen digu sakoneko aldaketa politiko eta sozialen beharra dugula aldarrikatzeko.

- **Gobernu berria Nafarroan.** Etxera etorrira, Nafarroan gobernu berria osatu da garai politiko berria lideratzeko. Politika sozial eta ekonomikoak eskuinak bereganatu izana kritikatzeko.

- **Lehia elektoralak espainiar Estatuan.** Hauteskunde lehia bizia dago jada. Datozen urteetan estatuko krisiak ixteko/gainditzeko aukera nork izango duen dago jokoan. Espainiarrak euren prozesua egiten ari dira lurralde batasuna eraberritu eta betikotzeko. Datozen urteak erabakigarriak izango dira. Lurralde ereduaren auziaz erabakiak hartuko dira.

- **Katalunia burujabetza bidean.** Burujabetzaren aldeko indarrek hauteskundeak irabazi ostean Estatuan PPk bere makinaria juridiko-errepresiboa sakatzen jarraitzen du. Independentziaren bila urrats berriak eman ala prozesu independentista zapuztu, hori dago jokoan.

- **Euskal Herria bidegurutzean.** PNVk egin du bere hautua: burujabetzari uko egitea. Eztabaida autogobernuari buruzko ponentzian lokartu du hemen, eta jendarteari bizkar emanez, negoziatzen ari da Madrilan. Iruzurra da.

Euskal independentismoa gai izan behar da Euskal Herriari proposamen argi eta sendoak egiteko, momentu politiko honi begira. Apurtzeko, burujabeak izateko, independentzia lortzeko, momentu politiko honetarako gure eskaintza zehaztu behar dugu.

- **Errekuperazio ekonomikoaren gezurra.** Ziklo ekonomiko berrian gaudela eta oparoa izango dela behin eta berriro errepikatzen ari zaizkigu. Diskurtso ofizial hori lau haizetara zabaltzen ari dira eta hauteskundeetan emaitzak ematen dituzten erabakiekin laguntzen, gainera. Gobernuen "poza" komunikabideetan zabaldu arren, krisia eta arazo ekonomikoak atzean geratu direnik zalantzan jartzeko gertakariak eman dira.

- **Pentsio arloan aldaketa berriak iragarri dituzte.** Alargunen pentsioak zerga bidez finantzatzeko aukera ireki dute; gure ustez pentsio sistema sortzen den aberastasuna banatuz ziurtatu behar da eta aurrekontuak dira horretarako tresna.

- **Benetako egoera sozial eta laborala diskurtso ofizialetatik kanpo** geratzen da, baina behin eta berriro dugu krisia zenbatekoa den ikusten aukera:

- Langabezia egiturazkoa egiten ari da, prestaziorik gabekoen kopurua hazten ari da.

- RGI jasotzaileen artean geroz eta gehiago dira enplegua dutenak. Langile pobreen errealitatea zabaltzen ari da.
- Lan istripu ugari gertatu da.
- Krisi sozialak arazo sozialak areagotu ditu, eraso sexista eta homofoboak, diskurtso eta jarrera xenofoboak kasu.
- **Lan arloan negoziazio kolektiboaren egoera ilun.** Negoziazio kolektiboan bi hitzarmen sinatu dira eta biak kritikatu ditugu. Arabako metala gutxiengoan sinatu da, agerian utziz patronalaren neurrirako akordioa dela. ELAk Bizkaian ehun-gin-tzako hitzarmena sinatu du, edukietan txarra. Lanbideko akordioa izan da argi-izpi bakarrenetarikoa. Edukietan gure aldarrikapen nagusiak jasotzea lortu dugu eta horregatik du gure sinadura.
- **Desberdintasun sozialak areagutzen.** Enpleguaren kalitatea gero eta okerragoa, prekaritatea, soldaten gaineko eraso, epe luzeko langabezia... Desberdintasun sozialak gero eta handiagoak dira, sortzen den aberastasuna esku gutxi batzuetan pilatzen ari da eta orain arteko erabaki politikoekin jarraitzen asmoa dagoenez joera okertu egingo da.

ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALA HELBURU

Aldaketa politiko eta sozialerako prozesuan gure ekarpena handiagoa eta emankorragoa izateko helburua jarri diogu gure buruari.

Kurtsoa erronka potolo batekin hasi dugu, ezker abertzaleak "Zutik Euskal Herria" estrategian sakontzeko gogoeta ireki du. Sindikatuan bat egiten dugu erabakiarekin eta gure ekarpena egiteko prest gara.

Begiak arlo politikoari begira izango ditugu kurtso honetan, burua gogoeta propioetan, gure eredu eta estrategia sindikala berritzeko eztabaidan zehazki. Eskuekin, berriz, egoera soziala aldatzeko borrokari helduko diogu: 1200 euroko oinarrizko soldata eta lanaldiaren murrizketa enplegu duina sortzeko, benetako neurriak aberastasuna banatzeko, prestazioak eta zerbitzu publikoak ziurtatzeko; politika ekonomikoak aldatzea eta sektore publikoa indartzea ere aldarrikatuko dugu, hazkunde eredu berri bat ezartzeko.

Aldarrikapenak baditugu lan mundua aldatzeko, arazo sozialak konpontzeko eta eredu sozioekonomiko berri bat erakitzeko. Aurten dinamikak abiatuko ditugu.

Kurtso honetan bi dimentsio ezberdinetan egingo dugu lan: batetik, Birpentsatzen prozesaren baitan (eredu sindikalaren gogoeta), 2017ko Biltzar Nagusiari begira egin beharreko eztabaidei eutsiko diegu; bestetik, kurtsoari jartzen dizkiogun erronkak aurrera ateratzeko plangintza garatuko dugu.

Sindikatuaren interbentzioa hiru ardatzen gainean egingo dugu: LABen ekintza sindikala lantokietan, Karta Sozialaren dinamika herrietan eta gure interbentzio propioa indartzean instituzioen aurrean eta gai sozioekonomikoetan.

PLANGINTZA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN

Herria aktibatu eta mobilizatzea da helburu orokorra eta horretan LAB erreferentzia izatea, gure erronka nagusia. Egoera aldatzeko jendearen aktibazioa ezinbestekoa da, ezin dugu momentu politiko eta sozialean protagonismo osoa gaurko gobernuen esku utzi.

Herria izan behar du protagonista eta horrela izango da mobilizazioa bere zentzurik zabalenean bultzatzen badugu, ondoko helburu hauek lortzeko:

1. Burujabetzaren aldeko indarrak aktibatzea. Independentziaren eztabaidan sakontzea izango da burujabetzaren aldeko jarrerak indartzeko lerroetariko bat.

2. Egoera sozioekonomikoa aldatzeko borroka politiko indartzea, lurraldez lurraldeko estrategia definituz. Ardatzak:

- Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraikitzeko estrategia gaurko momentu politikora ekartzea.

- Garapen eredia aldatzeko borroka.

- Zerbitzu publikoen defentsan langile gehiago inplikatzeko eta mobilizatzeke borroka zehatzak (hezkontza eredu propioa, Osasungintzan langile eta erabiltzaileen arteko aliantza...).

- Karta Soziala aldaketa politiko eta sozialerako prozesuaren tresna sozial bihurtzea. Kartak eman behar dio burujabetza estratigiari derrigorrez behar duen eduki soziala.

- Gehingo sindikalaren egoera aldatzeko inizatibak arakatu.

3. Euskal preso politikoen aldeko borroka lan munduan indartzea. Konponbide prozesuaren aldeko gure ikuspegia auzi honetaz haratago badoa ere, eremu honetan urratsak emateko premia nagusia da. Hiru izango dira borrokek: dispertsioarekin amaitzea, preso bizi baldintzak hobetzea eta preso etxeratzea konponbidearen ardatz izatea.

EKINTZA SINDIKALA ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

Ezin dugu hazkunde ekonomikoaren gaineko bertsio ofiziala ontzat eman eta jendea anestesiatzen lagundu. Errealitate hau bistaratu egin behar dugu, instituzioak interpelatuz.

Ereduekonomikoaren inguruko eztabaidarik ez dago. Patronalak negoziazio kolektiboa errealitate horretan sakontzeko bitartekoa izatea nahi du eta prekarietatean sakontzeko ez bada akordio aukerei ateak ixten dizkiete.

Aldi berean, badute nolabaiteko beharra aurpegia zuritzeko, eta horregatik erantzukizunaren zama gehiengo sindikalean kokatzen ari dira. LAB ez, baina CCOO eta UGT prest dira bide horretan laguntzeko, Arabako metalean egin bezala.

LABek langileen lan baldintzak hobetzeko, prekarizazio prozesuari mugak jartzeko erabili nahi du negoziazio kolektiboan, jakinda ere legeek patronalari lan harremanak desarautzeko emaniko abantaila guztiei ezin zaiela buelta eman negoziazio kolektibotik. Hori dela eta, negoziazio kolektiboaren mugetan katrapilatua ez jarraitzea erabaki dugu. Langileen errealitateari irtenbideak emateko asmoz, ekintza sindikala indartu eta berritzeko erabakia hartu dugu. Zentzu horretan helburu nagusiak bi dira:

1. Lan mundua berrantolatzeke beharrezko borroka indartzea. Horretarako langileak aktibatu behar ditugu lantegietan. Gure ekintza sindikala helburu hauei begira jarri dugu eta ekintza sindikala eraberritzeko erabakia hartu dugu.

Dinamika orokorra: Aldarrikapen nagusiak lan mundu osoan zabalduko ditugu, langile guztien artean eta enpresa txikitik bereziki. Aldarrikapen nagusiak: lan banaketa, 35 orduak eta 1.200 euroko gutxieneko soldata.

Egitasmo ezberdinak landuko dira eremu eremu, federazio bakoitzak (industria, zerbitzu pribatuak eta zerbitzu publikoak) bere egitasmoa diseinatuta du. Lerro nagusiak:

- Sektore prekario eta feminizatueta (garbiketa, merkataritza, telemarketing eta ostalaritza) prekarizazioaren aurkako borroka.
- Azpikontratetako langileak. Klausula sozialen aldeko lana.
- Enpresa handiak. Kontratazio berrietan ematen den diskriminazioa salatuz hasiko gara.
- Sektore publikoak. EPELen tramitazioa oztopatzeko dinamika abiatzarekin batera, tokian tokiko ekintza sindikala prekarizazioaren aurkako borroka.
- Enpresa txikiak. Sektore hitzarmena blokeatuta eta enpresa hitzarmenik ez dutenentzat, ekintza sindikaleko eskaintza berritua.
- Lan osasuna: badira hainbat lerro, lan istripuei erantzuteko protokolo berritua, mutualitateen kontrako kanpaina...
- Euskara: lan munduan euskarak bizi duen diskriminazioari aurre egiteko dinamika. Delekatuen formaziotik hasi eta enpresetako salaketaraino.
- LGHTB. Protokoloaren egitasmoa.
- Gazteak. ERNAI eta LABen arteko aliantza martxan jartzeko plangintza.

2. Negoziazio kolektiboan eragin, blokeo egoera gaindituz. Negoziazioetan mugimenduak izango dira, bai publikoan, bai pribatuan. Egoera aztertu behar da, tartean iruzur ikaragarriak egon daitezkeelako. Gure borroka langileen egoera hobetzea da, horretarako baliatuz negoziazio kolektiboan. Ekintza sindikal berritua langundu behar gaitu egoera gure alde hobetzen. Aurtengo plangintza luze eta zabal eztabaidatuko dugu.

BORROKA SOZIO-EKONOMIKOAK

Lau erronka nagusi ditugu:

1. Alternatibek Herria urriaren 24an arrakasta izatea Karta Sozialaren hirugarren faseari indarrez ekiteko. Ekimena herrietan aurkezteaz gain lan munduan zabaldu behar dugu, Karta Sozialaren erreferentzia indartzeko.



2. Eredu sozioekonomiko berriaren aldeko borroka garatzea: TTIParen kontra; energia politikak aldatzeko; finantza sistema publikoaren alde; pentsio duinen defentsan; zainduak izateko eta zaintzaileak ez izateko eskubidearen aldeko borroka.

3. LABen presentzia ziurtatzea eztabaida sozioekonomikoetan.

4. Egoera soziala aldatzeko politika berriak borrokatzea eremu instituzional bakoitzean: langabezia eta prekarietatearen kontra arituko gara; oinarriko eskubideak ziurtatzeko emergentzia planak exijituko ditugu; Aukera Berdintasuna ziurtatzeko urrats berriak aldarrikatuko dizkiogu eremu politiko-insituzionalari; garapen eredu berri baten aldeko politika zehatzak eskatuko dizkiogu instituzio bakoitzari eta industria politikak aldatzeko borroka ere garatuko dugu.

ANTOLAKUNTZA

Birpentsatzen prozesuaren barruan aztertzen joango gara sindikatuak behar duen egitura, gorputz organizatiboa, eta finen, antolaketa eredu. Prozesua garatzeko lau eztabaida talde jarriko dira martxan barne mailan: eredu sindikalaren gogoeta, berrantolaketa prozesua, komunikazio proiektu berria eta eredu eta estrategia sindikala sektore publikoan. Horrez gain, gogoetarekin jarraitzeko hitzordu klabe batzuk aurreikusten ditugu: unibertsitate sindikala, tailerrak eta jardunaldiak.

Antolakuntza ikuspegitik kurtso honetarako hainbat urrats ematea planteatzen da: bateragarritasunaren gogoeta martxan da; militantzia eredu bateragarriagoa lortzeko ariketa kolektiboa ere abiatuko dugu; etxeko lanen artean dago barne araudia berritzea VIII. Biltzar Nagusiaren mandatuari jarraiki; halaber, pentsiodunen arloari bultzada berria ematera goaz; sindikatuaren hedapena indartzen jarraitzeko erabaki berriak hartuko ditugu, barne funtzionamendua hobetzen jarraituko dugu, besteak beste.

